



2021 / 2022 ikasturtea

9-10 URTEKO HAURRETAN HERIOTZA MODU NATURALEAN
INTEGRATZEKO OSASUN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Itsaso Aizpurua Saizar

LABURPENA

Sarrera: Heriotza bizitzaren zati bat da, eta ukaezina da guztioi gertatuko zaigun zerbait dela. Heriotzaren hezkuntzak pertsona gisa hazteko eta bizitzarako prestatzeko aukera eman arren, zoritxarrez, eskola curriculumetik kanpo dagoen arlo bat da.

Helburua: 9-10 urte bitarteko hurrek heriotza prozesu natural gisara maneiatzen ikasteko Osasun programa bat diseinatzea

Metodologia: OHeP hau, programa piloto gisara diseinatuta dago, eskala txiki batean planteatuko den programa bat da, emaitzak jaso eta hauekin egokitzapenak egiteko. Programa garatzeko, konstruktibismo ereduari oinarritu da lan hau. Edukia lantzeko, banakako nahiz taldeko metodo eta teknika aktiboak erabili dira.

Plangintza: Proiektu hau aurrera eramateko eta proposaturiko helburuak betetzeko, metodologia zein teknika desberdinak erabiltzen dituzten 5 saioz eta 5 gaiez osaturiko OHeP bat proposatzen da. Proiektua martxan jartzeko eskola eta gurasoen baimen informatua beharko da. Hezkuntza hau aurrera eramango duen osasun-agentea erizaina izango da., eskola erizaina haiz zuzen.

Ebaluazioa: Programa eta ezarritako helburuak bete diren balioztazeko zenbait ebaluazio tresna garatu dira: pre eta post testak, ebaluaketa jarraia, ebaluazio errubrika eta galdetegiak, besteak beste.

Azken gogoeta: Aurretik aurkeztutako lana, OHeP bat da, 9-10 urte bitarteko hurretan eskaintzeko proposamena egiten dena. Programa honek, hurrek heriotzaren inguruan duten pertzepzioa eta ezagutza handitzea du helburu, hauen hezkuntzan modu natural batean gaia integratuz. Gaiaren inguruko bibliografia urriak edota zaharkituak, baimenen beharrak eta irakasleen prestakuntza gabeziak heriotza eskoletan integratzeko oztupoak dira. Horregatik, proiektu hau Zubi-musu ikastolan eskaintzeko eskaera formala egingo da 2023 urterako eta programa honetako emaitzak baliagarri suertatuko dira ondorengo programen egokitzapenarako.

Hitz gakoak: hurrak, osasun hezkuntza programa, heriotzaren pedagogia

Laburdurak:

OHeP: Osasun Hezkuntza Programa

INE: Instituto Nacional de Estadística

NIDA: National Institute on Drug Abuse

AURKIBIDEA

Sarrera	1
1.1. Osasun hezkuntza programaren justifikazioa	2
1.1.1. Haurren heriotzarekiko kontaktua	2
1.1.2. Heriotzaren inguruan hitz egitearen garrantzia	3
1.1.3. Heriotzaren hezkuntzaren urrakortasuna	4
1.1.3. Heriotza hezkuntza ez jasotzeak dakartzan kostu ekonomiko eta ondorioak	6
1.2. Diana-taldearen justifikazioa	8
Helburuak	9
2.1. Helburu orokorra	9
2.2. Helburu espezifikoak	9
2.3. Lan hipotesia	10
Metodologia	10
Osasun hezkuntza programaren plangintza	13
4.1. Diana taldearen ezaugarriak	14
4.2. Helburu pedagogikoak	14
4.3. Jardueren programazioa	15
4.3.1. Hezkuntza-edukiak	15
4.3.2. Estrategia metodologikoak	16
4.4.3. Beharrezko baliabideak	17
4.6. Kronograma	19
4.7. Jarduera pedagogikoak	20
4.8. Ebaluazioaren plangintza	24
Azken gogoeta	25
Bibliografia	26
Eranskinak	30
1. Eranskina: hezkuntzaren xedeak	30
2. Eranskina: Unitate didaktikoan landu nahi diren gaitasunak	31
3. Eranskina: Bilaketen taula II	32
4. Eranskina: Gurasoei egin beharreko galdeketa	34
5. Eranskina: Gutun informatua OHePren parte hartzeko gurasoen baimena	35
6. Eranskina: Ariketa fitxa	38
7. Eranskina: 17 haur ipuin umei gertuko norbaiten heriotza azaltzeko	42
8. Eranskina: Lehen hezkuntzako haurrentzako gomendaturiko film eta laburmetrai gomendagarriak	43
9. Eranskina: Errubrika	44
10. Eranskina: Ebaluazio galdetegia, osasun agenteei zuzendua	45

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Oinarrizko hezkuntzako zeharkako gaitasunak	3
2. Taula: Heriotzaren pedagogiari ekarpenak Espainian	5
3. Taula: PIO eskema	10
4. Taula: Bilaketa estrategikoa	12
5. Taula: Heriotza ulertzeko azpigaiak	16
6. Taula: Ikaskuntzara bideratutako banakako eta taldeko metodo eta teknika aktiboak	18
7. Taula: Baliabide-kostuen erlazioa	19
8. Taula: Kronograma	20
9. Taula: jarduera pedagogikoen xehetasunak	23
10. Taula: OHeP honen ebaluazio sitemaren laburpena	27

1. Sarrera

Heriotzaren kontzeptua urteetan zehar asko aldatzen joan da (Bulnes, 2018; Parra, 2017). Kultura, garai, ideologia eta erlijio desberdinek hari buruzko ikuspegi zabala eta anitza eskaintzen digute. Denak dira baliozkoak, nahiz eta beraien artean desberdintasun handiak izan. Hala ere, bada zerbait denbora asko igaro arren aldatzen ez dena; antzinako herrietatik egiaztatzen da heriotza gizakiarentzat desatsegina izan dela eta izango dela (Kübler-Ross, 1992). Gurea bezalako gizarte pragmatiko batean, edozeren erabilgarritasuna bilatu nahi denean, oraindik jende gehiegik ez dio bere buruari galdetzen zertarako balio duen heriotzak, zer zentzu duen edo izan dezakeen. Agian betiko biziko bagina bezala bizi garelako. Baina, zoritxarrez edo onuraz, ez da horrela. Heriotza bizitzari lotuta dago, eta ezin dira inola ere banandu; txanpon beraren bi aldeak direla esan daiteke. Hala ere, autore batzuek aitortzen dutenez (besteak beste; González, 2010; De la Herrán eta Cortina, 2007; Poch, 2009), heriotza gaur egun dagoen taburik handiena da. Gizartean presentzia etengabea eta errepikaria izan arren, gizakia oraindik ez dago prest horretaz askatasun osoz hitz egiteko (Gorosabel, 2013; Bulnes, 2018; Parra, 2017).

Baina bere logika badu beldur horrek, izan ere, pedagogiaren eta irakaskuntzaren historian ez dugu oraindik erreferentzia garbirik aurkitzen heriotzarako hezkuntza posible bati buruz modu zehatz eta sakonean hausnartzeko (Rodríguez, De la Herrán eta Cortina, 2012). Deigarria da ikastetxe gehienetan suteetarako protokolo bat dagoela, eta ikasle bat hiltzen denerako edota heriotza haurrei azaltzeko, aldiz, ia ez dagoela jarraitu beharreko protokolorik. Estatistiken arabera, ikastetxeetan heriotzak suteak baina maizago gertatzen dira, eta hala ere, urtero sute-simulazio bat egiten da eskola guztietan (Izaguirre, 2021; Turner, Thomas eta Santandreu, 2004).

Beraz, heriotza eskola-curriculumean gainditu gabeko ikasgaia da oraindik. Honen arrazoi nagusia: ez dagoela heriotzaren gaiari heltzeko proposamenik (Escolar, 2016; Agüero, 2017). Hau dela eta, gaia lantzeko baliagarria den programa bat proposatzen da, arazo honi esku hartu eta gai hau lantzen hasteko.

1.1. Osasun hezkuntza programaren justifikazioa

Atal honetan, Osasun Hezkuntza programa (aurrerantzean OHeP bezela adieraziko da) hau garatzeko justifikazioa zein den garatuko da; gaiaren prebalentzia, esku hartze ezberdinen eraginkortasuna, gizartean gaiak duen garrantzia, kostua eta arrisku faktoreak azalduz.

1.1.1. Haurren heriotzarekiko kontaktua

Haurrak egunerokotasunean duten heriotzaren gertutasuna ukaezina da. Beraien ingurunean gizakietan jasaten dituzten heriotzez gain, gainontzeko izaki bizidunen (landare, intsektu, animalia etab.) heriotzak ere bizitzen dituzte. Gainera, ia egunero, haurrek heriotza-egoerak ikusten dituzte: albistegietan, egunkarietan, bideo-jokoetan, marrazki bizidunetan eta abarretan. Heriotza presente dago printzesen, maitagarrien eta abarren ipuinetan ere (Guiainfantil, 2021; Longbottom eta Slaughter, 2018).

Datu espezifikoerri erreparaturaz, hainbat iturri ezberdinek baieztatzen digute haurrek gai honekiko duten gertutasuna. Lehenik eta behin, “Instituto Nacional de Estadística”-ko (INE bezala adierazia izango da aurrerantzean) datu estadistikoak gainbegiraturaz, espainia mailan 9-10 urte bitarteko 973.450 haur daudela zehazten da. INEren arabera, espainia mailan 2020 urteko jaiotze-tasa gordina 7.19koa da mila biztanleko, eta heriotza-tasa gordina, berriz, 10.40koa mila biztanleko, eta guztira 493.776 heriotza egon ziren (INE, 2020 a). Esandakoari gehituz, nazio garatu egonkorretan, haurren %3-4 inguruk gurasoetako bat galtzen du 18 urte bete baino lehen (Bergman, Axberg eta Hanson, 2017). Honen harira, estimatzen da baita ere, haurren %5-15ak maite duten pertsona garrantzitsu bat galduko dutela 18 urte bete baina lehen (Etfoda, 2021). Hori kontuan hartuz, eta espainia mailan 8.157.834 adingabe daudela kontuan izanik, 326.313 haurrek bizitzen dute beraien gurasoetako baten galera adingabeak diren bitartean (Bergman et al., 2017; INE, 2020 b). Azken urte hauetako datuei erreparaturaz, “The lancet” zientzia aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera, COVID-19aren pandemian zehar, 1,5 milioi haurrek baino gehiagok galdu dituzte gurasoak, aitona-amonak edo zaintzaileak gaixotasun honen ondorioz (National Institute on Drug Abuse (NIDA), 2021).

Beraz, datuek garbi uzten dute haurrek heriotzarekiko kontaktu jarraia dutela beraien egunerokotasunean eta adin heldura heldu aurretik, heriotzari bat baina gehiagok aurre egin behar izaten diotela.

1.1.2. Heriotzaren inguruan hitz egitearen garrantzia

Aurreko atalean ikusi den moduan, haurren egunerokotasunean heritoza badute ere, gai horretaz hitz egitea ez da ohikoa. Haurrak hazten doazen heinean, ikastetxeak arduratzen dira haiek hezteaz eta haien etorkizunari aurre egiteko eskuratu behar dituzten ezagutza guztiak irakasteaz. Eskolan erakusten zaie nola jaiotzen diren, nola erreproduzitzen diren, nola hazten diren... Azken finean, bizi-zikloa ia erabat azaltzen diete, baina zerbait ahazten zaie. Inoiz hitz egiten al zaie heriotzaz ikastetxeetan? Heriotza ez al da bizi-zikloaren parte? (Parra, 2017; Otero eta De Fatima, 2012)

Heriotza bizi-zikloaren zati garrantzitsua izanda, ez da aurkitu eskoletan honen heziketarik. Heriotzaren hezkuntza jasotzeak ez du haurren berezko oinarrizko hezkuntza prozesua eten edo eragotzi behar. Honen harira, “Oinarrizko Hezkuntza Curriculum-ak” ezarritako gaitasunetan oinarrituz, (ikus 1. taula) heriotzarekin bere horretan zuzenean erlazionatutako gairik kontenplatuta ez dagoela ikus daiteke (Ikus 1. eranskina).

1. Taula: Oinarrizko hezkuntzako zehar-gaitasunak.

Oinarrizko hezkuntzako zehar-gaitasunak
<ul style="list-style-type: none">- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia- Elkarbizitzarako kompetentzia- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Iturria: (Eusko Jaurlaritza, 2020 B)

Heriotza bere horretan eskola kurrikulumean kontenplatua ez egon arren, lehen hezkuntzako bigarren zikloan landu beharreko gaitasunak, heriotzaren hezkuntza bidez jorratu daitezkeen arloak dira (ikus 2. eranskina).

Heriotzaren hezkuntzak pertsona gisa hazteko aukera ematen dio haurrari (Agüera, 2017; Bulnes, 2018; De la Herran eta Cortina, 2006; Gorosabel eta Leon, 2016). Bizitza beste ikuspegi batetik ikusteko aukera ematen die, hain berekoia ez den modu batean; izan ere, jakitun dira bizitzan ez zaizkigula nahi dituzten gauzak bakarrik gertatzen, ezta nahi duten unean ere, eta, askotan, galdu duten eta behar duten zerbaiten gabeziarekin bizitzen ikasi behar dute. Hezkuntza honen bidez, gizarte trebetasunak lantzen dira, komunikazioa hobetzen da; parte-hartzea eta elkarriketa sustatuz. Haurrek beste baten lekuan jartzen ikasten dute, enpatia eta besteekiko errespetua bezalako jarrerak garatuz. Bestearen minarekin identifikatzen dira eta besteen zoriaz interesatzen dira, laguntzeko

eta zaintzeko berezko rol arduratsuagoa hartuz. Gizarte irekiago bat garatzen da, aurrerapenera eta giza garapenera bideratua (Gorosabel et al., 2016). Heriotzarako hezkuntzari esker, haurrekin landu daitezke independentzia, sormena eta adimenaren garapena (De la Herran et al., 2006; Parra, 2017). Hezkuntzatik haurrak alderdi horietan hezten badira, etorkizuneko zailtasun zein egoerei aurre hartu ahal izateko prestatuagoak egongo dira, horretarako tresna gehiago izanik. (Poch eta Herrero, 2003; Gorosabel et al., 2016).

Eskoletan heriotzerako hezkuntzak dituen abantailak halakoak badira, zergatik ez sartu ikasgeletan? Bizitzari buruz irakasten den bezala, zergatik ez da heriotzari buruz irakasten? Heriotza ez al dagokio bizitzari?

1.1.3. Heriotzaren hezkuntzaren urrakortasuna

Beraz, heriotzaren pedagogiaren garrantzia aintzat hartuta, alor honen inguruko ikerketa internazional zein estatu mailakoak errebisatuko dira. Esaterako, joan den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera, hainbat teknika edo jarduera didaktikok heriotzaren pedagogian duten eraginkortasunari buruzko ikerketak azaleratzen joan ziren (Rodríguez, De la Herran eta Cortina, 2019). Baina hauek oraindik mugatuak dira, eta haien emaitzak testuinguru-erreferente isolatu gisa azaltzen dira.

Oro har, heriotzaren pedagogia arloan, lanak ugaritu egin direla ikusten da, XXI. mendearen hasieran geldialdi erlatiboa izan dela eta duela gutxi berraktibatu dela. Honekin, heriotza birpentsatzeko eta, batez ere, heriotzarako hezteko beharra erakusten duten azterlanak aurkitu dira; horrela, ikerketa zientifikoak eraikuntza kritikoko prozesu batean bideratzen dituzten ikuspuntu berriak daude, non lehen eskola-mailetatik didaktika eta gizarte-curriculum ardatz gisa hartzeko beharra azpimarratzen den (Otero et al., 2012; Rodríguez et al., 2019; Agüera, 2017).

Azpimarratu beharreko ikerketa bat, Durlakek 70. hamarkadan egindako azterketa konparatiboa da. Azterketa honen helburua, ondokoa jakitea zen: zein metodo pedagogikok, esperimentalak edo teorikoak, murriztu zitzakeen hobekien ikasleen heriotzarekiko beldurrak. Ikerketak frogatu zuen teknika esperimendalekin lan egin zuen taldeak (role playing, kasuei buruzko eztabaidak, etab.) gehiago murriztu zituela heriotzarekiko beldurrak teknika teorikoen bidez parte hartu zuenak baino (Rodríguez et al., 2019).

Beste ikerketa garrantitsu bat, Glassek eta Knottek 80. hamarkadan eginikoa da. Bertan,

nerabeei zuzenduriko heriotzarako hezkuntza-programa bat inplementatu zuten, aurre-test baten eta post-test baten bidez neurtuz programaren eraginkortasuna, heriotzaren aurreko antsietatea murrizteari buruz. Egileek ondorioztatu dutenez, talde esperimentalean heriotzarekiko antsietateak behera egin zuen (Rodríguez et al., 2019).

Esandakoaz gain, Glassek 90. hamarkadan egindako ikerketa batean, bi astetan zehar heriotza curriculumean sartzearen eraginkortasuna aztertu nahi zuen ondorengo azterlan batean, talde esperimental batekin eta kontrol-talde batekin. Talde esperimentalak herioaren aurrean antsietate gutxiago izan zuela zirudien bi aste hauen ondoren kontrol taldearekin alderatuta (Rodríguez et al., 2019).

Espainiako kasuan, lehen ikerketetako bat Joan-Carles Mèlichek egindako doktorego-tesia izan zen, "Situaciones-límite y educación. Estudio sobre el problema de las finalidades educativas (1989)". Lan horren ondorioz, gai honen inguruko ikertzaileak gero eta gehiago dira, baita espainiar estatuan heriotzaren pedagogian laguntzen ari diren lanak ere. Ikerketa hauen sintesia ikus 2. taulan.

2. Taula: Heriotzaren pedagogiari ekarpenak Espainian

Autoreak	Ezagutza arloa	Ikuspuntua	Erreferentziako hezkuntza-etapak
Joan Carles Mélich (1989)	Ezagutzaren filosofia. Psikologia	Existenzialismoa Mugapenaren filosofia	Ez zehaztua
Agustin de la Herrán, Isabel González et al., (1998-2000)	Pedagogia, didaktika, irakasleen formazioa, bilakaeraren psikologia	Konplexu eboluzionista edo erradikala eta inklusiboak	Haur- hezkuntza
Concepción Poch eta Herrero (2000)	Ezagutzaren filosofia. Psikopedagogia.	Kristau-humanismoa	Ez zehaztua
Mar Cortina (2003, 2010)	Didaktika, tutoretzaren eremua, gurasoen eta irakasleen prestakuntza	Filosofia perenemetafisikoa	Nerabezaroa
Agustin de la Herrán eta Mar Cortina (2006)	Pedagogia didaktika, psikopedagogia, irakasleen formazioa, hezkuntzaren antolaketa	Konplexu eboluzionista	Haur-, lehen- eta bigarren-hezkuntza
Pablo Rodríguez, Agustin de la Herrán eta Dolores Izuzquiza (2012, 2013)	Pedagogia, psikologia, hezkuntza inklusioa, irakaslearen formazioa, bitartekariak	Konplexu eboluzionista, humanista eta inklusiboa	Unibertsitateko irakaskuntza
Pablo Rodríguez, Agustin de la Herrán eta Mar Cortina (2015)	Pedagogia, irakaslearen formazioa, didaktika eta inklusioa	Konplexu eboluzionista, humanista, inklusiboa eta kontzientzia	Haur-, lehen- eta bigarren-hezkuntza eta batxilergoan

Iturria: (Agüera, 2017)

1.1.3. Heriotza hezkuntza ez jasotzeak dakartzan kostu ekonomiko eta ondorioak

Lehen aipatu bezala, heriotza haurtzarotik modu natural batean barneratzeak zenbait onura dauzka. Baina, hau ez lantzeak, onura horiek ez lortzeaz gain, kalte edo arrisku batzuk sortu ditzake haurraren garapenean. Honen ondorioetako bat, gaur egungo gizartean dagoen heriotzaren tabua da, zerbait naturala eta unibertsala izan arren, beldurraren poderioz isilpean gordetzeko gai bilakatu den arte (Gorosabel, 2013).

Honen harira, gertuko heriotzak, haur naiz nerabeengan sortzen duen minaren behaketa bereziki mingarria da haien gurasoengan. Horregatik, gurasoak, hauek babesten saiatzen dira, zenbaitetan egia ukatuz edota hau ezkutatzeko zenbait esaldi erabiliz “lo geratu da”, “bidaia bat egitera joan da”... Baina horrelako esaldiek, hurrei onura bat ekartzetik urrun kalte egiten diete; beldurra eragin diezaiekete lo egiteko garaian edota galera-fantasiak ekarri inguruko norbait bidaian joaten denean (Otero et al., 2012). Gainera, heriotza ukatzeak, berekin ekarri ohi du pertsona bat fase terminalean dagoenean prozesua ez onartzea, eta baita bizitzaren amaierako prozesuaren inguruko desiorik ez izatea. Honek kasu gehienetan, heriotza lasaia, kontrolatua eta baketsua gauzatzea eragotziz (Agüera, 2017).

Hiltzeko hezten ez duen gizarte honetan, gertaera honi aurre egiteko baliabide eta estrategiak murrizak dira. Heriotzaren errealitatearen aurrean, oro har, pertsona gehienak psikologikoki ahulak eta babesgabeak izaten dira, gertakari horren aurrean beldurrak eta segurtasun ezak sortuz. Esandakoari gehituz, haurraren inguruko norbaiten heriotzaren informazio nahikoa ez edukitzeak, haurra isolatuta sentitzea ekar dezake. Honek, egia ukatzearekin batera, haurren dolu prozesua oztopa dezake, hauek ukapen-fasean gatibu utziz edota dolua patologizatzeako arriskua handituz (De la herrán et al., 2006 ; Agüera, 2017).

Beste autore batzuen arabera (Ridley, Revet, Raynaud et al., 2021), gertuko norbaiten heriotzak eragin negatiboa izan dezake epe labur eta luzeko emaitza psikosomatiko eta sozioekonomikoetan, maila indibidualean. Hauek dira epe luzerako adierazpen eta erronka ohikoenak: lo hartzeko zailtasuna, antsietatea, depresioa, errua, banatzeko antsietatea jokabide-nahasmendu barneratzaileak eta kanporatzaileak, autoestimu baxua, gizarte-uzkurtasuna, eskola huts-egite handiagoa, eskola-errendimendu baxua, legez

kanpoko substantzien erabilera, gizarte-harremanetako arazoak eta suizidio-saiakera. Gainera, gizartearen laguntza asegaitza, hau da, familiarekiko eta lankideekiko komunikazio eza heriotzarekiko, arrisku-faktore garrantzitsua izan daiteke antsietatea eta dolu luzea areagotzeko (Ridley et al., 2021; Martino, 2012; Weber, Alvariza, Kreicbergs eta Sveen, 2019).

Hezkuntza hau ez jasotzeak dakarren kostua jakitea gaur egun zaila da, izan ere, heriotzaren hezkuntza ez da praktikan dagoen arlo bat. Baina, estimazio bat egin daiteke, heriotza modu natural batean ez integratzean galtzen diren onurak eta honek dakartzan arrisku faktoreak eta heriotza batek bere ingurune estuko pertsonetan ekar ditzakeen arazo biopsikosozialak eta osasun mentaleko eragina kontuan izanik (Agüera, 2017; Parra, 2017).

Honen kostua aztertzen jarrita, ondorengo datuak bildu dira: OMEren txostenaren arabera, tratatu gabeko buruko nahasmenduek prezio altua dute, munduko gaixotze-tasa osoaren %13 osatzen baitute (Torres, 2018). Osasun mentaleko eta garuneko nahasmenduek Espainian eragindako kostuak urtean 83,749 milioi eurokoak izan ziren 2010ean. 2017an burututako azterlan bateko datuen arabera, nahasmendu mentalak (nahasmendu neurologikoak alde batera utzita) 45,988 milioi eurokoak izango lirarteke, eta nahasmendu depresiboak, antsietatekoak eta somatizazioak, berriz, 22,778 milioi eurokoak (Nahasmendu depresiboak 10,763 milioi + antsietatekoak 10,365 milioi + somatizazioak 1.650 milioi), 488 euro per capita eta urte bakoitzeko (Ruiz, Cano, Muñoz et al., 2017).

1.2. Diana-taldearen justifikazioa

Hurtzaroa da galeren frustrazioa integratzen eta onartzen ikasteko garairik onena. Pertsona maitatu baten heriotza gertatu aurretik modu didaktikoan egitea oso lagungarria da, bizitza-zikloan izango dituzten ondorengo heriotza esperientziatarako (Izaguirre, 2021). Horregatik, haurrek txikitatik onartzen, ulertzen eta baloratzen ikasi behar dute, pentsamoldea irekia denean, aurreiritziek kutsatzen ez dutenean eta deskubritzeko, ezagutzeko, esperimintatzeko eta ikasteko prest daudenean. Bestela, helduengan gertatzen den bezala, zailtasuna handiagoa da, ideiak, balioak eta sinesmenak finkatuta daudelako (Rodríguez et al., 2019).

Gonzalez eta De la Herran (2010) autoreek, haurrek heriotzaren esanahia eta

kontzeptualizatzeko duten moduaren arabeko sailkapen bat egin zuten. Sailkapen hau haurrak adin tarte ezberdinetan banatuz burutu zuten eta Pochek eta Herrerok (2003) haurrek heriotza ulertzeko kontutan eduki beharreko azpigaien analisisan oinarrituta dagoela esan daiteke (Parra, 2017). Bertan, haurrek txikitatik heriotza prozesu natural gisara ulertzen dutela ondorioztatzen da. Heriotzarekiko beldurra 6 urterarte ez da agertzen, eta hau imitazioz edo beste beldur batzuk egoteagatik transmititutako sentrazio negatiboen emaitza izan ohi da, hala nola, bakarrik egotearen beldurra, gurasoen abandonua edo banantzea (Escolar, 2016).

- **2 urte:** haurrek ez dute ulertzen heriotzak zer esan nahi duen. Haientzat hitz bat besterik ez da. Ez dira gai heriotza hautemateko.
- **3-6 urte:** haurrek heriotza aldi baterako eta itzulgarri gisa ikusten dute (haientzat lo egitea bezala da, eta, uste dute hildako pertsona esnatuko dela). Ez dute ulertzen zer esan nahi duen bizitzaren amaierara iristeak, ezta bizi-funtzioen amaierak ere.
- **6-7 urte:** errealitatea zer den eta fantasia edo fikzioa zer den bereizteko gai dira. Heriotza egitate errealago gisa ikusteko gai dira, eta bizi-funtzioen amaiera ulertzen dute. Adin horretan heriotzaren atzeraezintasunaren zentzua hartu dute, baina ez orokortasunarena, eta, beraz, ez dira jabetzen beraiei noizbait gerta dakiekeenik.
- **8-10 urte:** gehienek unibertsaltasunaren kontzeptua bereganatu dute. Badakite heriotza denoi gertatuko zaigun zerbait dela, baita beraiei ere. Adin horietan hasten dira gaiarekin beldur gehiago izaten, eta kontzientzia handiagoa dute inguruan dituzten arriskuez.

Esandakoari gehituz, Curriculumean araututa dagoenaren harira, lehen hezkuntza mailako bigarren zikloan, zientziarako konpetentzian gizakia eta osasuna multzoan ugalketaren gaia landu behar da (Eusko Jaurlaritza, 2020 a). Horretaz gain, Royal Society-n argitaratutako artikulu batek dioenez, heriotza bizitza sortzen den momentuarekin batera azaltzea onuragarria da haurrentzat (Longbottom et al., 2018).

Beraz, haurren garapen kognitiboan eta eskola curriculumean oinarrituz, OHeP hau, 9-10 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie, oinarritzko lehen hezkuntzako 4. mailako taldeari hain zuzen. Diana taldea maila honetan finkatzea erabaki da, nahiz eta garapen kognitiboa subjektiboa eta aldakorra izan, orokorrean bederatzi edo hamar urtetik aurrera, haurrak erabat ulertzen hasten direla heriotza atzeraezina dela, unibertsala dela, hots,

izaki bizidun guztiak hil egiten direla eta beraiek ere egunen batean hilko direla (De la herrán et al., 2006; Harris, 2018; Panagiotaki, Hopkins, Nobes, Ward eta Griffiths, 2018; Ridley et al., 2021).

2. Helburuak

Atal honetan, osasun programa hau aurrera eramatearekin lortuko diren helburu orokor zein espezifikoak zeintzuk diren zehaztuko da.

2.1. Helburu orokorra

9-10 urte bitarteko haurrek heriotza prozesu natural gisara maneiatzen ikasteko Osasun programa bat diseinatzea.

2.2. Helburu espezifikoak

- Heriotzaren pedagogiaren inguruan publikatuta dagoena ezagutzea
- Helburu pedagogiko nagusiak eta bigarren mailakoak finkatzea
- Programaren edukia zehaztea
- Beharrezko antolakuntza-, giza- eta material- baliabideen plangintza egitea
- Heriotza lantzeko jarduera eta baliabide didaktikoak eskaintzea
- Proiektuaren prozeduraren, egituraren eta baliabideen ebaluazioa finkatzea

2.3. Lan hipotesia

OHeP hau inplementatu ondoren, haurrek heriotza prozesu natural gisara maneiatzen ikastea espero da. Honekin, gizarte trebetasunak landuz, komunikazioa hobetuz; parte-hartzea eta elkarriketa sustatuz. Gainera, enpatia, besteekiko errespetua, independentzia, sormena eta adimenaren garapena bezalako arloak garatuz. Heriotzarako hezkuntzari esker, eskola curriculumak konplementatzea espero da, bertako gaitasun ezberdinak jorratuz. Honen ondorioa, bitzarako prestatuagoak dauden eta honekiko ikuspegi zabalagoa duten haurrak izanik.

3. Metodologia

Proposaturiko helburu espezifikoak betetzeko, gaiaren inguruko bilaketa bibliografikoa burutu da 2021eko azaroa eta 2022ko otsaila bitartean. Osasun-arloko zenbait datu-basetan (BVS, Cochrane eta Web of science core collection, PubMed, Dialnet eta

CUIDEN) oinarritu da bilaketa. Horrez gain, bilaketak gauzatu dira bilatzaile ezberdinetan, gaiaren inguruan argitaratutako liburuetan eta osasun erakunde internazionalen argitaratutako informetan besteak beste, informazio gehiago lortzeko eta lanaren zehaztasuna handitzeko helburuarekin (Ikus 3. eranskina).

Bilaketa aurrera eramateko eta zehazteko, PIO egitura jarraitu da:

- **Population (pazientea):** 9-10 urte bitarteko haurrak
- **Intervention (esku-hartzea):** Heriotzaren inguruko osasun hezkuntza
- **Outcome (emaitzak):** Heriotza modu natural gisara maneiatzen ikastea

Behin PIO egitura osatuta, atal bakoitzaren osasun-zientzietako deskribatzaileak DeCS, MeSH eta hitz-gako egoki zein terminologia librea zehaztu dira (ikus 3. Taula)

3. Taula: PIO eskema.

PIO	DeCS	MeSH	Hitz gakoak/ Terminologia librea
P	Niño	Child	Niñez/Childhood
I	Muerte Enseñanza Educación para la salud Instituciones Académicas	Death Teaching Health education Schools	Pedagogía Death education Intervención didáctica
O	Actitud frente a la muerte Muerte	Attitude to death Death	Afrontamiento de la muerte

Datu-baseetan bilaketa egiterako garaian, PIO egitura osatzen duten deskriptoreak erabili dira. Horiek erabiltzeaz gain, datu-baseek dituzten iragazkiak erabili dira bilaketa ahal den gehien zehazteko intentzioarekin. Hainbat dokumentu eta gida kontsultatu dira informazio egokia topatu ahal izateko. Termino ezberdinen elkarketak egiteko AND operadore bolearra erabili da (ikus 4. Taula).

4. Taula: Bilaketa estrategikoa

DATU BASEAK	BILAKETA ESTRATEGIA	ARTIKULU KOPURUA	IRAGAZKIAK	ARTIKULU KOPURUA	HAUTATUTAKO ARTIKULUAK
BVS	(mh:(death education)) AND (mh:(child))	11	Inglés	8	2
	(mh:(niño)) AND (mh:(enseñanza)) AND (mh:(muerte))	13	Inglés	13	5
ERIC	“Death education” AND Children	82	descriptor: teaching methods	8	1
	descriptor:"Death" AND descriptor:"Children" AND descriptor:"Education"	266	last 10 years	45	1
PUBMED	("Schools"[Mesh]) AND "Attitude to Death"[Mesh:NoExp]) AND "Child"[Mesh]	18	-	18	1
	((("Schools"[Mesh:NoExp]) OR "Education"[Mesh:NoExp]) OR "Teaching"[Mesh]) AND "Attitude to Death"[Mesh]) OR "Death"[Mesh:NoExp]) AND "Child"[Mesh:NoExp]	1614	Last 5 years Full text	204	5
	(death education[Text Word]) AND (child[MeSH Terms])	30	Inglés	30	4
	((("Child"[Mesh:NoExp]) AND (("Death"[Mesh:NoExp]))) OR ("Attitude to death"[Mesh])) AND ("Teaching"[Mesh:NoExp])	107	-	107	2
	((death education) AND ("Child"[Mesh:NoExp])) AND ("Schools"[Mesh:NoExp])	80	Full text Last 5 years	31	1
	Child (Title) AND education (Title) AND death (Title)	20	-	20	1
SCIENCE DIRECT	Pedagogia muerte Y niños	53	-	53	2
DIALNET	muerte AND niños AND escuelas	125	-	-	5
	Pedagogia muerte escuelas	45	-	-	4
CUIDEN	[cla= muerte] and [cla= pedagogia]	9	-	9	2

Honekin jarraituz, artikulua aukeratzeko orduan zenbait barneratze- eta kanporatze-irizpide ezarri dira:

- Barneratze-irizpideak: Izenburua eta laburpena gaiari egokitzea, artikulua 9-10 urte bitarteko haurrei zuzendua egotea, heriotzaren pedagogian oinarritzea, hezkuntzaz hitz egitea, ingelesez, gazteleraz edo euskaraz publikaturik egotea.
- Kanporatze irizpideak: gurasoei edo zaintzaileei zuzendutako heriotzaren hezkuntza, populazio orokorrari zuzendutako heriotzaren hezkuntza, gaixotasun terminal batean soilik oinarritzea, erlijioan oinarritzea, bizitza amaierako zaintzen hezkuntza.

Aipatutakoaz gain, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak duen Heziberri programako “Guía para la elaboración y evaluación de unidades didácticas” (Eusko Jaurlaritzak, 2020 c) manuala erabili da programari unitate didaktiko forma emateko. Umeen garapen egokian oinarritzeko, “Oinarrizko hezkuntzako curriculum” hartu da kontuan lana jorratzeko (Eusko Jaurlaritzak, 2020 a). Gainera, Nafarroako gobernuak sortutako “Manual de educación para la salud” manuala ere oinarritzat hartu da proiektu hau osasun hezkuntza bat izanik bertan oinarrituz (Perez, Echaurre, Ancizu et al., 2006).

Azkenik, OHeP hau programa piloto gisara diseinatuta dago, hau da, eskala txiki batean probatuko den programa bat da. Heriotzaren hezkuntzaren inguruko datu gutxi egotean, programa honen helburua azterlanean izan daitezkeen akats edota arazoak detektatzea da.

4. Osasun hezkuntza programaren plangintza

Atal honekin, OHeP honen plangintza burutuko da, bertan diana-taldearen ezaugarriak, helburu pedagogiko orokor zein espezifikoak, eduki, jarduera eta metodologia pedagogikoa eta parte hartuko duten osasun-langileak, kronograma eta programaren ebaluazioa zeintzuk izango diren zehaztuko dira.

Osasun-heziketa proiektua martxan jarri aurretik, Villabonako zubi-musu ikastolako zuzendariarekin bilera bat egingo da, bertan proiektu honen helburu eta metodologiak zein beharrezko baliabideak azaldu eta baimena eskatuko da hau aurrera eramateko. Horrez gain, diana taldeko gurasoekin bilera bat egitea garrantzitsua izango da, familiaren heriotzaren inguruko estigmen, ezagutzen, jarreraren eta osasun-hezkuntza honen inguruan izan ditzaketan itzaropenen berri izateko. Honen harira, garrantzitsua

izango da gaur egungo gizartean arlo honek duen tabuaren kontziente izatea (Gorosabel, 2013). Informazio hau jasotzeko elkarrizketa erdi-egituratu bat egingo zaie, plantilla bat jarraituz eta erantzunak jaso, programaturiko egun batean, ikastolako gela batean edota telefono dei bidez, haurra bertan ez dagoelarik (ikus 4. eranskina). Azkenik, Eusko Jaurlaritzak duen etika batzordeari eskatuko zaio baimena, programa hau aurrera eramanez. Gainera, haurrek hezkuntza hau jaso dezaten, ezinbestekoa izango da programa martxan jarri behar den eskolako haurren gurasoei baimen informatua eskatzea, hezkuntza curriculumetik at dagoen gai bat izanda, guraso bakoitzak libreaki erabakiko du beren seme/alabak hezkuntza hau jasoko duen ala ez. Honetarako, guraso guztiei idatzi bat bidaliko zaie euskaraz zein erdaraz (ikus 5. eranskina) programaren helburu eta saioez informatuz eta honetarako baimena eskatuz.

4.1. Diana taldearen ezaugarriak

Programa Villabonako zubi-musu ikastolako 9-10 urte dituzten haurrei zuzentzen zaie eta adin tarte honi oinarrizko lehen hezkuntzako 4. maila egokitzen zaio. Maila honetan 2 gela aurkituko dira, guztira 39 haur aurreikusten dira, 24 neska eta 15 mutilez osaturik hain zuzen.

4.2. Helburu pedagogikoak

- Helburu orokorra: heriotza, 9-10 urte bitarteko haurrek, prozesu natural gisara maneiatzen ikasteko, heriotzaren prozesuaren inguruko gaitasun mota ezberdinak bereganatzea: ezagutzak, gaitasun/trebetasunak eta jarrerak.
- Helburu espezifikoak: Diana taldeak honako helburuak beteko ditu kurtsoaren ondoren:
 - Heriotzak sortzen dituen emozioak identifikatzeko gai izatea (Jarrerazkoa)
 - Sentimenduak izendatzea eta haiek desberdintzeko gai izatea (Jarrerazkoa)
 - Literaturaren zein filmografiaren bitartez, heriotzaren unibertsaltasuna ezagutzea lehen eta bigarren saioetan zehar (Ezagutzazkoa)
 - Literaturan oinarrituz, heriotzaren izateko arrazoia ezagutzea (Ezagutzazkoa)
 - Bizi-zikloa eta honen amaieraren kontzientzia sortzea (Jarrerazkoa)

- Bizi-zikloa behatzea, heriotzaren atzeraezintasuna jorratuz (Ezagutzazkoa)
- Heriotzaren definizioa adierazten jakitea (Ezagutzazkoa)
- Izaki-bizidun eta ez-bizidunen arteko bereizketa egiten jakitea (Ezagutzazkoa)
- Heriotza esperientzien perspektiba konpartitzeko gaitasuna izatea (Jarrerazkoa)
- Heriotzaren kultura aniztasuna ezagutu (Ezagutzazkoa)
- Norbera zein den eta jasan dituzten aldaketak adieraztea (Jarrerazkoa).
- Hildakoa agurtzeko modu ezberdinak ezagutzea (Ezagutzazkoa)
- Heriotzaz hitz egitearen naturaltasuna zabaltzea (Jarrerazkoa)
- Bakoitzak bere sentimenduak adieraziko ditu (Jarrerazkoa).

4.3. Jardueren programazioa

Lanaren atal honetan, programako hezkuntza-edukiak zeintzuk izango diren zehazten da, horrekin batera erabili den estrategia metodologikoa azalduko da eta azkenik, programa zertan datzan eta ze baliabide erabiliko diren azalduko da.

4.3.1. Hezkuntza-edukiak

Edukia finkatzerako garaian helburu pedagogikoetan oinarritzea ezinbestekoa da. Horrez gain, Pochek eta Herrerok (2003), haurrek ulertu behar dituzten azpikontzeptuak adierazi zituzten (ikus 5. taula) eta hauetan baliatuz zehaztu da eduki pedagogikoa. Hauek ziotenez, haur eta nerabe guztiak heriotzari buruzko funtsezko bost kontzeptu ulertu behar dituzte, heriotzak ordezkatzeko duenaren esanahia eraiki ahal izateko. OHeP honetan, azpigai hauek kontzeptu bezala landuko dira programa osoan zehar (Agüera, 2017).

5. Taula: Heriotza ulertzeko azpigaiak.

Heriotza ulertzeko azpigaiak		
¿Izaki bizidun guztiak hiltzen dira?	Unibertsitalitatea	1. gaia
¿Hil ondoren bizitzara itzuli zaitezke?	Irrebertsibilitatea	2. gaia
¿Norbait hiltzean, gorputzak ez du funtzionatzen?	Ez-funtzionalitatea	3. gaia
¿Zergatik hiltzen gara?	Kausalitatea	4. gaia
¿Heriotza amaiera da?	Jarraipen ez-korporea	5. gaia

Iturria: (Poch et al., 2003)

Honen harira, azpigai hauetako bakoitza ulertzeko garaian hurrek izan ohi dituzten arazoen ondorioz erabaki da kontzeptuak horrela banatzea. Unibertsitatearen kontzeptua ulertzeko garaian hurrei beraiek hilko direla onartzea zaila egiten zaie eta bere jakin-minak eta larritasunak bultzatuta zalantza asko izaten dituzte. Atzera ezintasunari dagokionez, hurrek denbora behar dute kontzeptu hau ulertzeko garaian, heriotza prozesu itzulgarri gisa ulertuz, honen ondorioz eufemismo eta metaforak ez erabiltzearen garrantzia heriotzataz hitz egitean, hala nola, “lo geratu da” eta horrelakoak. Ez funtzionaltasunari dagokionez, hurrei muga kongitiboaren eta emozionalaren ondorioz bizi-funtzioen amaieraren esanahia ulertzea kosta egiten zaie. Jarraipen ez-korporeoaren kontzeptuan, hurrei hildako pertsona batek janaririk, edaririk etab behar ez duela onartzea kosta ohi zaie. Azkenik, kausalitatearen kontzeptua lantzea garrantzitsua da, hurrari pertsona zergatik hil den ez argitzeak nahasmena sor dezake haurraren, edo, are gehiago, umearen pentsamendu egozentrikoa dela eta, errudun sentitu daiteke (Agüera, 2017)

4.3.2. Estrategia metodologikoak

Programa hau aurrera eramateko, Billabonako Zubi-musu ikastolari baimena eskatuko zaio bere gela batean egiteko hain zuzen, gela hau astean 2tan 5 saioz beharko litzateke, 2023 urteko martxoaren 2tik 17ra bitarte. Saioen iraupena 45min-1h bitartekoa izango da gutxi gorabehera eta jada LH 4. mailan banatuta dauden talde beretan eskainiko da. OHeP hau garatzeko orduan konstruktibismo eremuan babestu gara. Honetarako, Jean Piaget-ek idatzitako “La representación del Mundo en el Niño” (1973) eta Lev Vigotsky-ren “El desarrollo de los procesos psicologicos superiores” (1978) liburu zein ereduetan oinarritzea erabaki da. Izan ere, eredu honetan, funtsezkoa ez da ezagutza berri bat eskuratzea, baizik eta harekin gaitasun berri bat lortzea, hau da, dakitena agertoki berri batean aplikatzea. Horrela, ikasleak eskolan ikasitako kontzeptu bakoitza errealitatean egiaztatu ahal izango du (Sesento, 2017). Edukia lantzeko, banakako nahiz taldeko metodoak eta teknika aktiboen erabilpena funtsezkoa da, ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak garatzeko, planteatutako helburua lortze aldera (ikus 6. taula).

6. Taula: Ikaskuntzara bideratutako banakako eta taldeko metodo eta teknika aktiboak

Ikasketa prozesua:	Bakarkako metodo/teknika	Taldeko metodo/teknika
Bere egoera adierazi	Adierazpen-metodoa Teknikak: - Entzute-aktiboa - Galderak	Ikerketa-metodoa Teknikak: - Ideia zaparrada - Rejilla - Galdetegia
Informazioa berrantolatu	Informazio-metodoa Teknikak: - Entzute-aktiboa - Galderak	Azalpen-metodoa Teknikak: - Azalpena - Irakurketa
Aztertu eta hausnartu	Analisi-metodoa Teknikak: - Laburbildu eta ordenatu - Ariketak	Analisi-metodoa Teknikak: - Kasuak - Testuen analisisia
Gaitasunen garapen eta entrenamendua	Gaitasunen garapen-metodoa Teknikak: - Erabakitze laguntza - Rol-playing - Entrenamendu-froga	Gaitasunen garapen-metodoa Teknikak: - Erabakitze laguntza - Rol-playing - Entrenamendu-froga

Iturria: (Perez et al., 2006)

Ingurune egokia sustatzeko, lehenik eta behin topaketarako teknika bat zuzendu behar da (harrera, aurkezpena, kontratua eta agurra). Izendatutako teknikari esker, motibazioa eta inplikazioa erraztuko dira, eta, horrela, konfiantzazko giro bat sortuko da, non errazagoa izango den feed-back bat sortzea programak ematen duen osasun-agentearen eta parte-hartzaileen artean (Perez et al., 2006).

4.4.3. Beharrezko baliabideak

OHeP hau aurrera eramateko, saio bakoitzean landuko diren gaien arabera baliabide didaktiko ezberdinak erabiliko dira (ikus 7. taula).

7. Taula: Baliabide-kostuen erlazioa

Baliabidea	Kostua
Imprimatutako materiala:	
- Jack y la muerte (liburutegian alokatu)	0 euro
- Ariketen txostenak (5 orri x 25)	7 euro
- Baimen orriak (2 orri x 25)	2.5 euro
- Galdetegiak (2 orri x 26)	2.6 euro
Ikus-entzunekeo materiala:	
- bideoak	0 euro
- Coco filma (liburutegian alokatu)	0 euro
Material bisuala:	
- Dilistak	3 euro
- Kotoia	2 euro
- Plastilina	13 euro

- Buztina	10 euro
- Tiza	3 euro
<hr/>	
Zubi-musu ikastolak utziko duen materiala:	0 euro
- Ordenagailua, proiektorea, mahaiak, aulkiak, arbela	
<hr/>	
Haur bakoitzak ekarri beharriko materiala:	
- Margoak	0 euro
- Arkatza	0 euro
- Jogurt potoa	0 euro
- Koloretako kartulinak	0 euro
<hr/>	
GUZTIRA	43.1 euro
<hr/>	

Aipatzekoa da, heriotza ikastetxeetan sartzeko irakasleek nahikoa prestakuntza ez dutela diotela zenbait autorek, eta honetarako prestatuta ere ez direla sentitzen (Bulnes, 2018; De la Herrán, et al., 2006; De la Herran et al., 2015). Honen ondorioz, OHeP hau aurrera eramango duen osasun-agentea, eskola erizain bat izango da (Zarza, 2021).

